A propósito. Ante otro. Bajo sospecha. Cabe precaución. Con temeridad. Contra tiempo. De verdad. Desde velocidad. Durante momentos. En vida. Entre intentos. Hacia algo. Hasta eso. Mediante intervención. Para acometido. Por relatividad. Según convenio. Sin consulta. So pena. Sobre estructura. Tras propuesta.

A imaginario. Ante relevancia. Bajo malentendido. Cabe hueco. Con recoveco. Contra pared. De cebolla. Desde posición. Durante acción. En lugar. Entre ninguno. Hacia razón. Hasta muro. Mediante separación. Para señalar. Por construcción. Según ladrillo. Sin revestimiento. So capa. Sobre protegido. Tras tabique.

A impostura. Ante opinión. Bajo traducción. Cabe esperar. Con dudas. Contra nada. De barranco. Desde límite. Durante caída. En vacío. Entre acantilados. Hacia inmersión. Hasta fondo. Mediante hundimiento. Para interpretar. Por gravedad. Según dispuesto. Sin posibilidad. So bruta. Sobre todo. Tras respuesta.

A totalidad. Ante normalidad. Bajo orden. Cabe necesitar. Con uso. Contra contemplar. De hipermetropía. Desde el asombro. Durante la noche. En esta ciudad. Entre edificios. Hacia la luz. Hasta algo. Mediante un zoom. Para funcional. Por capricho. Según los gatos. Sin frenos. So lista. Sobre el asfalto. Tras la basura.

A nadie. Ante ello. Bajo conclusión. Cabe poco. Con cuidado. Contra qué. De gratis. Desde coger. Durante la oferta. En regla. Entre informaciones. Hacia delante. Hasta saber. Mediante un gesto. Para poder. Por lógica. Según creo. Sin pérdidas. So brava. Sobre ponerse. Tras impacto.

## APAIZ NAGUSI TXIT GORENA

Bierrepublikako Apaiz Nagusi Txit Gorenak amets bat izan zuen, eta Batzorde Legitimatzailea deitu zuen. Egun haietan ekaitzak jo zuen, eta hasiberri batzuek beren lonja termikoetatik irten behar izan zuten. Tenperaturak behera egin zuen ziztu bizian, eta anil

graduoko ziklogenesia hasi zen. Sinkronizazio-mezuak bidali baziren ere, larba gazteak izoztu egin ziren. Mendian gora egin zuten aldeek, berriz, ezin izan zieten garaiz abisatu larrialdi-zerbitzuei, mendiko gaitzak jota ibili baitziren batzuk, eta balizekin galduta beste batzuk. Kanpo-mintzak izan ziren hipoxiaren eraginak pairatu zituzten lehenengoak. Egunsentia heltzerako, ordea, nukleoraino heldu zen, eta larbak hil egin ziren.

Apaiz Nagusi Txit Gorenak bere ametsa kontaktu zion Batzorde Legitimatzaileari. Gau hartan, bere aitak burua galdu zuen, eta segika zeukan. Batzordeak ametsa interpretatu behar zuen, baina apaiz ertainek erabaki zuten irudi horrekin ez negoziatzea. Zera esan zuten: «ez daukagu zorrik iraganarekin». Apaiz Nagusi Txit Gorenak bere hezurduraz jabetu zen eta, une batez, bizkarrez ziplo erortzeko zorian egon zen, zirrara gogorregia pairatu duen intsektua bailitzan. Txit Gorenaganako belaualdi-enpatia handiena zuten apaiz gorenak apelazio bilerara deitu zuten, hemezortzi mende beranduago. Arkanoa, ordea, ez zen bilera hartara agertu, eta ondorengotza-lonjetarako termostato proiektua aurkeztu zuen lonjako bigarrenak.

## HILKETA DANTZALEKUAN

Cesepeéren 1980ko marrazki bat, tinta txinatarrez egina. Dantzaleku biribila irudikatzen du, eta sabaitik esekitako banderatoxoak. Argi-fokua hautsi egiten da. Oholtza gainean musikari bi, gitarrarekin eta mikrofonoarekin. Musikarien siluetak beltzez beteta daude; distira zuri batzuek gorputzen dituzte. Atzean, anplifikadorea. Kupula itxurako karpa baten azpian dago dena. Dantzalekuan hiru bikote daude. Gizonezkoek alkandora, jaka eta gorbata dute jantzita. Emakumezkoek, berriz, jantziak eta dantzarako zapatak. Zazpigarren bat ere badago dantzalekuan; han, urrunea. Sintesi gisa ageri da. Hiru tiro bota dituzte. Irudian ez da arma ageri, bakar-bakarrik hiru balak eta horien ibilbidea. Balek bikoteak dituzte jo-puntuak. Lehenengo bikotea da tiroa bota den lekutik hurbilen dagoena. Gizonezkoari jo diote, bizkarraren albo batean. Odol-tximistak irteten zaizkio zauritik eta ahotik. Tupustean, tiro egiteko unean, burua atzera erortzen zaio, gora begira dagoela. Neskak eutsi egiten dio. Zurrun-zurrun dago, ikararuta, geldi.

Erdiko bikotea ere ustekabean harrapatu dute tiroek, dantza-pauso bat egiten ari direla. Emakumezkoak besoak luzatu ditu, ezkerretara erortzen den bitartean. Galtzerdi beltzak ditu, oso distiratsuak. Bala bat igaro da lehen bikoteko emakumeak bere beso eta gorputzaren artean utzitako tartetik. Airean, oraindik, bularrean jo dio ia.

Hirugarren bala hirugarren bikoteari zuzenduta dago. Lehen planoan daude, ezkerrean. Gizonezkoak hiru beso ditu. Emakumea haren aurrez aurre dago, bizkarra ematen dio. Italiar popa,

igerilari gorputza, enbor gisako lepoa eta buru txikia. Mototsean batuta dauka ilea. Albora ageri dira irudian. Emakumezkoak oso beso bitxia dauka, lau atzamar puntadunekin, eta bala geldiarazi nahi du. Popa, berriz, handi bezain zoragarria du, italiarra. Gizonezkoak emakumezkoa eusten du, hirugarrena (besoa), mugimendu batean izoztuta, zurrun eta solte daukala, bizkarraren atzean. Tantodun alkandora eta jaka grisa ditu jantzita, eta ilean marra orraztuta. Aurpegia ez zaio asko ikusten, baina sudur txiki eta begi handikoa da. Gizonaren hirugarren besoko atzamarrak tente daude, arantzak dirudite.

## AHATEAK, MOKOA

Erakusketa prestatzeko zeukan denbora eta dirua ikusita, pentsatu zuen ea beharrezkoa izango zen materiala eskuratzea. Eta ez, ez zen beharrezkoa. Gizonezko metakrilato urdinari so geratu zen, ergelduta. Biltegi batean etorri zen, mikarentzat giltzatak batek duen distira bertsuarekin. Mika izan liteke bere animalia totemikoa, moko itxurako sudurra dauka eta. Gutxi gorabehera pubertaroan hazten da sudurra, gorputzeko beste atalekin batera. Halaxe egiaztatu du, beste sudurluze batzuekin hitz egin eta gero. Gazte-gaztetatik hasi zitzaizkion komeriak, klasekideak *Napia*<sup>2</sup> deitzen hasi zitzaizkionean. Huraxe izan zuen haurtzaroko goitizena, garai haletan sudur arrunta zeukan arren. Lagunek ere ez zuten burua gehiegi hautsi, errazera jo zuten. Letra bat aldatu, besterik ez zuten egin behar izan. *Nadie*<sup>3</sup> ere deitzen zioten.

Lagunek sistema bat asmatu dute, denborari, diruari edota tokiei buruz hitz egiten duenean duen zehaztasun falta adierazteko. Zera esaten diote: «*Nadioetan*<sup>4</sup> neurtzen zuzu dena». Zerbakiak eta proportzioak erabat arrotz zaizkionez, neurri hori esleitu diote: *Nadioa*. Berarekin egoten direnek horrelako burutazioak izaten dituzte sarri. Kontu barregarrien segida sortzen denean, adibidez, zera esaten dute: «hara bestea, *erein eta erain*».

Karrika estuen arteko desobedientzia zibilarri buruz pentsatzen dabil orain, eta Pedro Reyesen bakarrizketa baten kartel zoragarriari buruz: «El cielo es infinito, pero un poco estrecho». Pentsatu du, eta ez du bidezkotuko.

Espiritu adar-jotzaileak zera galdetu dio, urrunetik, asaldatuta: «sorginkeria batek bezala markatu zintuzten izen berri horietan faltan dagoen hizkia izango al zen zure sudurra hazarazi zuena, edota baruan daramazun norbaiti hel egin ziona?» *Pinocho fue a pescar al río Guadalquivir, se le cayó la caña y pescó con la nariz*<sup>5</sup>.

## AUTOHIPNOSIA 1: MOTOR-GIDARI FANTASMA<sup>6</sup>

Jarri begirada puntu batean, zure begiak baino apur bat gorago, desfokuratu arte. Eutsi begiei hortxe,

zirriborro horretan, begi-txapelak nekatzan hasten diren arte. Nabarituko duzu erortzen doazela eta, azkenean, itxi egiten direla. Utzi joaten.

Zenbatu 1etik 10era, astiro, arnasa hartzen duzun bitartean. Hustu birrikak, eta berriro bete, mantso. Egin arnasa nirekin batera: 1, arnasa hartu, airea bota (erlaxatu, sentitu zure giharrak lasaitzen); 2 (arnasa hartu, bota)... Entzun nire ahotsa... 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10. Erlaxatuta zaude jada, utzi gorputzari atsedean hartzen; utzi joaten; arnasa hartu, besterik ez; entzun nire ahotsa, eta zenbatu dezagun atzeraka, elkarrekin. Hasi gaitezen: 10 (zure gorputza erlaxatuta dago); 9 (begiak nekaturata dituzu); 8 (besoetan duzun inurridura atzamarretara jaisten doakizu); 7 (hankak dardarka dituzu, nekearen nekeaz); 6 (logure zara); 5 (lo egiteko gogoa duzu); 4 (lo hartzen duzu); 3 (kosta egiten zaizu entzutea); 2 (egin lo); 1 (egin lo).

Orain ni zara. Marrazten ari zara. Esaten dudan gauza bakoitza ikusten ari zara, eta esaten dudan gauza bakoitza sinesten duzu. Nire ahotsa zure baitan dago, baina,aldi berean, zu nire baitan zaude, hitz egiten dudan bitartean. Nire ahotsa zure pentsamendu bilakatzen da. Nire pentsamendua zure pentsamendua da. Hor barruan. Hitz batzuk botako ditut, astiro. Idatzi itzazu, marraztu nahi izango bazenitu moduan. Marraztu astiro, oso-oso astiro. Marraztu oso-oso azkar; entzun oso-oso astiro. Ilunabarra.

Zerumugaren plano bat, errepidea. Motor-gidari fantasma, motozikletaren heroia, sutan dago; han, urruntasunean, izarrak bezalaxe. Izarrak, urrutiko argiak unibertsoan. Motor-gidaria erakargarria da, estilo handikoa. Lan-jantzi urdina darama jantzita. Egia oihukatzen ari da motor-gidaria. Ameriketako Estatu Batuak gazteria hitzen ari dira. Tratuetan ikusten zaituztet, eta herioa, asfixia, itolarrria, erortzen, jaisten. Hiltzen ikusten zaitut, hil egingo zara. Ez duzu motor-gidari fantasmaren bihotza hautsi nahi. Bere herritik gidatzen ari da, burua sugarretan bilduta, suzko halo batez inguratuta, begiak negar-malkotan. Motor-gidari fantasma, motor-gidari fantasma, segi gidatzen. Ez utzi inoiz gidatzeari. Aizu, egon Sutan, ez ahaztu! Suarekin sutan. Suarekin, bai.

Ospa egin herri horretatik, autopistarako desbideratzea, argi luzeak, eurria ari du, diagonaletik. Eurriak zipriztindu egiten du motor-gidariaren kaskoa, marrazkiak egiten ditu motor-argien haloetan; marrazkiak egiten ditu eurriak, eta lurrundu egiten da, motor-gidari fantasmaren kaskoaren suzko haloarekin talka egitean. «... maitatzen duena erre egiten da; eta erretzen dena argindarraren abiaduran doa, hegaz» (Val del Omar-en aipu hori txertatu du motor-gidariaren buruan). Urruneko aintzira baten aurrean gelditu da motor-gidari fantasma; hurbilgotik ikusita, ordea, zingira da. Lupetz-putzuz beteta ditu ertzak. Motor-gidariak kaskoa erantsi, eta bere aurpegia ikusi du. Ezaguna egiten zaio. Zeure aurpegia da, zu zara motor-gidaria.

Begi bakoitzaren barruan planeta bat. Planetaren erdian irisa, krater amaigabea bailltzen. Amaierarik gabeko hondo hori, ordea, plano opakua da, beltza, tonurik gabea.

Nire ahotsa zure baitan dago: «marrazten dudanean, lupetzatan hasi eta amaitzen dut beti. Lupetzarako bidea ikasi nuen: han hasi, eta bide laburra egiten dut. Bainua hartzea bezalakoxea da: zingiraren ertzean hasten zara eta hurbildu egiten zara, beldurtuta edo beldurrik gabe. Ez da oraindik jaio zu geldiaraziko zaituen amaren alabarik. Hondoak ikusten duzu lehenbizi, beltzena; nik hori ikusten dut lehenengo, ez dakidalako igerian (itotzeko zorian egon naiz birritan, eta ez dut igerian egin nahi). Uraren beldur naiz».

Offeko ahotsa amatatu egiten da, astiro. *Fade out*, beltzera itzaltzea. Batera datoz siltasuna eta beltza, aldeberekoak dira. Hurrengo planoan, zure oin biluziek zanpatu egiten dute lupetzak zanpatutako belarra. Euritan jarraitzen du. Aukeratzea dauka ea biluzik ala jantzita zauden, baina oinak biluzik izan behar dituzu, eta burua ere bai. Aurrera egiten duzu; sentitu eurria aurpegian; sentitu lupetza, zure oinetara egokitzen, zure behatzen artean, pausu bakoitzean zipriztinak ateratzen. Ondo baino hobeto ezagutzen duzu soinu hori. Entzun ezazu, eta astiro ibili.

Sartu uretan oinez. Uretan, lehenbizi, hotzaren sentsazioa, lehen kolapsoa. Hori gaingiduta, zatoz zeure onera, egokitu zaitze, eta aurrera egin. Ura gerriraino heltzen zaizu, baina, hurrengo urratsarekin, konturatzen zara jada ez dagoela zorurik. Zuloa dago, eta ez dakizu zelakoa den. Atzerapausorik ez. Berreskuratu oreka, haztatu oinarekin, aurrera egiteko erabakia hartu. Utzi uretan murgiltzen, pasiboki edo aktiboki, zeure moduan. Ukitu hondoak. Hortxe dago lupetza. Irteteko, altxa besoak, eta astindu. Atzamar-puntak zikintzen dituzu; lupetza zein leuna den ikusten duzu —hain da leuna, izutu egiten du—, ikutzeaz batera desegin egiten da. Marraztu zure oinak, lupetza hausten. Lupetza bezain izututa daude zure oinak ere. Mugitu zaitze, sartu oinak eta, ahal dela, gorputz osoa. Ahal baduzu, leporaino murgildu. Areago: itxi begiak, eta burua ere sartu. Entzun, ikusi, begiratu, pentsatu eta usaindu. Lupetza sartzen da zure sudur-zuloetan. Eztula datorkizu; kanpora ateratzen duzu; botaka egiten duzu, lupetza eta txistua, bortizki, txistua itsasoko aparra bailltzen. Marraztu zure oka itsasoko aparra bailltzen.

Saiatu hondoak jotzen. Ezin duzu. Ez duzu jotzen, ez dagoelako hondorik. Hori ulertu eta gero, orain irten egin behar duzu. Ahal duzu. Luzatu zaitze, ahal duzun moduan, berriro irteteko. Marraztea horixe da: uretan murgiltzea eta irtetea. Beldurraren ostean, gerora, zingira batera hurbiltzen zara beti, irudizko zingira batera. Lupetzatan murgilduta, ezinezkoa da ideia, gorputza eta substantzia bereiztea. Begietatik lupetza kendu behar duzu, ertzeraino joan narras —igerian jakin gabe ere—, ahal duzun moduan. Zoaz narras. Ez begiratu.

Begi itxiekien begiratu. Ez zabaldu begiak, baina begiratu. Begi gorriekin begiratu, irrikaz. Begi-txapelak itxita dituzula, begiratu iezaezuz zure mوتر maitearen argiei. Huraxe da aurkitzen duzun lehen gauza ezaguna. Baina ez zabaldu begiak. Begiratu odola, begi-txapeletako kapilarrak marrazten. Begiratu azal gorria, arrosa, laranja, bioletazko eta arrezko itzalaren bineta, begiak alboetara mugitzen dituzunean. Kapilarren marrazko beltzak. Azalezko lanpara baten pantaila bezalakoxea da begi-txapel bakoitzeko azala.

Begiak zabalitzen dituzu, apurka-apurka. Zilar-koloreko lerroa da argia; gero, zuri bihurtzen da, eta begi-txapelak guztiz zabalitzen dira, mantso-mantso. Lehen irudia ikusten duzu. Gelditu. Zenbatu hamar arte, begiak irudi horretatik kendu gabe. 1, 2, 3, 4, 5 (eutsi irudiari); 6, 7, 8, 9, 10. Zabaldu gehiago begiak, min eman arte. Eutsi begiradari. Eutsi irudiari, kendu begirada eta gogoan izan irudi hori. Ez ahaztu. Esnatu zaitez.

## GERATZEN DEN DENBORA

Gorria esleitzen dio Antonionek basamortuari, antsietate paisaiari. Pentsatzea eta bizitzea ez dira kontrako kontzeptuak, baina, batzuetan, halaxe ematen du. Zortzi urteren bueltan, obsesio latz bat zuen: lotarakoan, arnasean kontzentratzea. Biziki larritzen zen konturatzean arnasa independentea eta automatikoa zela, eta ezin izaten zuen lorik egin. Ez zuen mugimendua kontrolatzen, eta pentsatzen zuen sistema gelditu egin zitekeela edozein unetan (automatismoak kontrakoa bermatzen badu ere). Apur bat geroago, beste beldur arraroago batek ordeztu zuen hasierako hura: ezin zuen sofan bakarrik egon, iruditzen baitzitzaion sofak eta besaulkiek arnasa hartzen zutela. Aurka egiten bazion hantxe geratzen zen, lotuta / izututa. Sofa puzten eta husten hasten zitzaion begien aurrean, itxuragabeki. Ez dauka gogoan azken honen orde zekin fobia etorri zitzaion. Edonori eskatuz gero oxigenoa irudikatzeke, errotulagailu urdina erabiliko du, ez dagoelako errotulagailu gardenik.

Urdin irudikatzen du itsasoak bere burua; eta kolore hori erabiltzen da ingelesez tristura adierazteke ere. Hamar urte geroago, erizain laguntzaille praktikak egin zituen onkologia-planta batean. Han ikasi zuen zianosia dela muki-mintzetako eta azaleko ehunen koloreztatzea (eta oinetan eta eskuetan gertatzen dela, batez ere). Odol-hodietan oxigeno faltak eragindako sintoma da, eta heriotza gertu dagoela iragartzen du. Oxigenorik gabeko hemoglobina urdin kolorea hartzeko joera du. Antzekeak dira zainen kolore urdina eta zianosia eragindako kolore-dispersioaren prozesua, eta zera urdin ikustea ahalbidetzen duena. Kolore batzuk beste batzuk baino gehiago islatu eta xurgatzen dira. Zianosian, odol oxigenatu distiratsuz gainezka egon ohi diren zuntzak bete egiten dira oxigenorik gabeko odol ilunez; bada, odol horrek efektu optiko gehiago izaten ditu.

Zeruan, hodeiak elkartu eta buru erraldoi bi eratzen dituzte. Alegorian murgildu da, argazki batzuei begira. Jana da neskaren izena. Oso ondo geratzen da bere ile koloregabeta argiaren kontra. Irribarre egiten du eta, artean, kosk egiten dio loratan dagoen almindrondo-adar bati. Udaberria da. Urdin argizko plano baten kontra, Janus, jainko aurpegi bikoia (bata etorkizunera begira, eta bestea iraganari so). Interferentzia bitxia; pentsamendua, berez / artea hilezkorra da, eta anbizioa, berriz, guztiz beharrezkoa, gaztearena zein zaharrarena / Horrek guztiak gogora ekarri dizkio egin beharreko marrazki bi:

Mendebaldeko denbora-lerro batean, Jano gaztea etorkizunari begira egongo litzateke, eta Jano zaharra kontrako norabidean urrunduko litzateke, iraganerantz, tartea handiagoa eginez mendetik mendera. Elkarri bizkar emango liokete.

Ekialdeko beste denbora-lerro batean, berriz, Jano gazteak eta zaharrak elkarri musu emango liokete ahoan, amaierako eta hasierako puntu zehatz eta magikoan.

\* Beste marrazkia horren ostean otu zaio: mihi bat, hagin bako aho bat esploratzen.

Musika dauka jarrita, Morphineren Good; Marc Sandman ari da kantuan, ene horretan: «deika daukat zure burua eta zure esperientzia; bizi egin zara, eta zure adimena sexya da; jakin nahi dut zer esan behar duzun. Zera esango dizut: zeruaren zaporea duzula, euria egingo duzula dirudielako». Diskoa jotzen egon da, eta ez daki zenbateraino eragin dion. Ordea, argi dauka giro-musika baino ez zuela entzuten, pasarte hori lehen planora igaro den arte. Irudia gorpuztu da. Iruditzen zaio kantak oparoak direla: sentituak izatea, besterik ez dute bilatzen; istorio pertsonal txikiak dira, garrantzi bakoak. Bere artetik espero zitekeenetik oso bestelakoa, bere ustez. «Espero zitekeena» idatzi / esan du, baina berak ez du ezer ere espero artetik, erakunde gisa. Besteen bitzitzen taupadak jasotzen ditu bakarrik. Maitatutakoaren islari buruz, berriz, dio «isla maite» dugula, eta «isla aurpegia» dela.

Duela urte batzuk, Raúlek esan zuen lore bat, kimu baten amaiera, zela heriotzetik hurbilen zegoena. *Mar y vena* koadroa pintatu zuen neskak. Lore baten azaleko zainak irudikatu zituen. Bere zainetatik zihoazen Raúlek marrazketari buruz egindako hausnarketa haiek. Dantzan egiten zuen bezalaxe bizi zen (zainak, aldakak eta haginak ere mugitzen zituen).

## AUTOHIPNOSIA 2: PERLA METAMORFIKOA

Jarri begirada puntu batean, zure begiak baino apur bat gorago, desfokuratu arte. Eutsi begiei hortxe, zirriborro horretan, begi-txapelak nekaten hasten diren arte. Nabarituko duzu erortzen doazela eta, azkenean, itxi egiten direla. Utzi joaten.

Zenbatu 1etik 10era, astiro, arnasa hartzen duzun bitartean. Hustu birikak, eta berriro bete, mantso. Egin arnasa nirekin batera: 1, arnasa hartu, airea bota (erlaxatu, sentitu zure giharrak lasaitzen); 2 (arnasa hartu, bota)... Entzun nire ahotsa... 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9 eta 10. Erlaxatuta zaude jada, utzi gorputzari atsedean hartzen; utzi joaten; arnasa hartu, besterik ez; entzun nire ahotsa, eta zenbatu dezagun atzeraka, elkarrekin. Hasi gaitzen: 10 (zure gorputza erlaxatuta dago); 9 (begiak nekatuta dituzu); 8 (besoetan duzun inurridura atzamarretara jaisten doakizu); 7 (hankak dardarka dituzu, nekearen nekeaz); 6 (logure zara); 5 (lo egiteko gogo duzu); 4 (lo hartzen duzu); 3 (kosta egiten zaizu entzutea); 2 (egin lo); 1 (egin lo).

«Agian badakit noraino, agian urrutiegi egongo da, heldu naiteke. Baina neurriaren zentzua behar da. Eta ez daukat oso garatuta. Orekarena daukat garatuago, eta harrotu egiten naiz. Finean, somnanbuluak teilatu-mugan ibiltzeko duen trebezia besterik ez da. Planto egiten dit ezsnatzen banaute, edo ni neu esnatzen banaiz, inozo baten moduan; eta, hori, gerta dakidake». Pentsatu Jean Cocteauren pasarte horri buruz. Modu horretan ezagutzen duzu zeure burua, neurriak konprenitu gabe.

Inguruan arbolak dituzu. Arratsalde erdia da. Ez dakizu non zauden, eta leku honek itxura handia du dagoeneko bisitatu dituzun beste paraje askorekin. Ez duzu ezer berririk ikusten hemen. Artearen mundu zaharrari zer esan ere ez daukazu. Berrogeita hamar urte dituzu, berdin dio ez jakiteak horrek zer esan nahi duen. Urteei dagokionez ere ez zara oso iaioa. Zure eskuei begiratzen diezu; zure azalari erreparatzen diozu; zimurrak dituzu hatz-koskorretan, batez ere hatz lodiaren inguruan. Eraztun batek ito egiten du zure atzamarretako bat. Gauza asko dakizu, baina konturatzen zara ideiarik ere ez duzula horiek nola adierazi. Zure azazkalak distiragabeak dira, grisak eta zuria, eta zelula horixkak metatzen dira kutikulen inguruan. Eskua begietaraino hurbildu, eta fokuratzen saiatzen zara. Poroak handi bihurtu dira, eta poro bakoitzaren barruan krater bat dago, eta barruan azal gehiago.

Ibiltzen hasi zara, etxerantz (oharkabea), eta portutik igaro zara. Aktibitate handia dago ordu hauetan; arrain hilaren eta kresalaren usaina hartu duzu, harri hezearena. Ibiltzen zoazela estropezu egin duzu. Ostra bat da. Hartu egin duzu. Eskuetan daukazu, eta zabaldu egin duzu. Barrualdea nakarrezkoa du, eta moluskoaren haragi artean perla bat ageri da, begiak zabalik, zuri begira, txantxa bat bailitzan. Atzamarrekin adurrak kentzen dizkiozu. Etxera bueltan zoaz, itxitako ukabil barruan ostra sentitzen duzula. Sukaldean sartzen zara, eta zerbaitek esaten dizu uretan sartu behar duzula. Edalontzi bat urez bete, eta bertan sartu duzu. Edalontzian behera doa ostra; hondoa ukitzearekin batera, hotzean irakiten hasten da, bitamina eferbeszente horiek bezalaxe. Bolatxoa ez dago jada.

Desintegratu egin da, perla baten ideian bilakatu da. Ideia, bai: behin eraikita, zutik nekez eusten den ideia. Barregarri geratzen da sarri, eroarena egiten du, artikulazioak dislokatuta. Beirazko edalontzi barruan gasezko figura ñimiño batzuk daude.

Gogora ekartzen duzu zer-nolakoa den hegazkin baten leihoetatik begiratzea, behean, ur-edalontzi baten barruan bezalaxe, flotatzen ari diren hodeiei. Hodei horien azpian mendikateak, arbola txiki-txikiak. Errekastoak ere ageri dira, ximurrak bailiran; eta erreka irribarretsua, ortu karratuak, badia lasaiak, eta itsaslabar bertikalen kontra jotzen duten olatu asezonek mugatutako itsaso basatiak. Hortik goitik, baina, ezin duzu hori guztia ikusi. Ikuspegi zenitala duzu, eta paisaia bakoitzean aurpegi bat asmatzen hasi zara, aurpegi bat beste bati itsatsita. Batzuk hasi egiten dira aurrekoak amaitu aurretik ere. Gainjarri egiten dira, teilakatu, geruza gardenak bezala, Picabiaren marrazki batean bezala. Begiak pausatzeko puntu zehatza aurkitzen duzu, eta jaistea erabakitzen duzu. Masail baten erdian jausi zara, astiro-astiro. Hiri baten erdiko plaza batean, abesbatz baten soinu ahula heltzen zaizu belarrietara, eta jasanezina egiten zaizu. Arabazoak dira, biribilgune bateko arbola bete egiten dute, martxotik ekainera. Beren gorotzen usain gozo eta azidoa ere hartzen duzu. Biribilgune baten erdian zaude. Airea sentitzen duzu aurpegian, ez dago kutsadurarik. Ez dago trafikorik. Kotxe bat ere ez. Hodeitara altxatzen duzu begirada, lehen goitik ikusi dituzun hodei horietara. Hodeiak zure atzetik jaisten hasi dira, eta konturatu ere ez zara egin. Hurbildu ahala, aingeru-armada baten itxura hartzen dute hodeioi. Zauden lekutik ez dakizu zenbat diren, ea ehundaka ala milaka diren, ea errepikatuta dauden. Forma berbera dute guztiek.

Gizonen aldizkari horietako bat daukazu; azalean gizon eder bat. Ez dakizu zergatik duzun aldizkari hori eskuetan. Biguna eta malgua da; bildu eginen duzu, eta zerura begiratzen duzu berriro ere. Aingeru hegalarien armada hurbiltzen ari da. Michael Fassbenderren aurpegia dute denek, ez dago aldaketa formal edo tematikorik, eridikulua da ikustea berdin-berdinak direla. Gorputza, ordea, desberdina dute, haurrena batzuek, helduena besteek. Eros gizonetakoak dira, sexu-organoei halaxe erakusten dute, berez asexualak badira ere. Hegan datoz, samalda batean. Oinak, lurretik metro askora. Zeure buruari galdetzen diozu ea zergatik ez dagoen emakumerik errepikatuta euren artean. Monica Bellucci bat, esaterako. Horrelako burutazioetan ari zinen masa zuri hori zuregana hurbiltzen zen bitartean. Orain aldatu egin dute jaisteko ibilbidea; ez dirudi aurrera egiten dutenik, bertikaletik jaisten ari direla baizik.

Zu zauden biribilgunetik haratago, biribilgunea inguratzen duten errepideetatik apur bat haratago, kale elkartzut bat, portu batean amaitzen darena.

Itsasoan amaitu eta hasten da portua. Bare dago. Buia batzuk daude ur-azalean, kaio batzuk eta multzo hegadun batzuk islatzen dituen ozeano baten urdinaren gainean flotatzen. Neurriak zehatzagoak bihurtzen dira tonua serio jartzen denean. Tren bat irteten da A-tik B-ra, orduko 80 km-ko abiaduran. Ebatzi zenbat denbora beharko duen helmugara iristeko. Egin nahi duzun marrazkian pentsatzen duzu. Marrazkiak zera esango luke: emakume honentzat ez dago ez erreleborik, ez helmugarik. Flotatzea aurrera ez egitea bezalakoxea baita. Emakumearentzat C abiapuntua (edozein) baino ez dago, zuzenetik at.

Ettxera itzultzea erabakitzen duzu, marrazkia egitera. Begiak zabaltzen dituzu, apurka-apurka. Zilar-koloreko lerroa da argia; gero, zuri bihurtzen da, eta begi-txapelak guztiz zabaltzen dira, mantso-mantso. Lehen irudia ikusten duzu. Gelditu. Zenbatu hamar arte, begiak irudi horretatik kendu gabe. 1, 2, 3, 4, 5 (eutsi irudiari); 6, 7, 8, 9, 10. Zabaldu gehiago begiak, min eman arte. Eutsi begiradari. Eutsi irudiari, kendu begirada eta gogoan izan irudia. Ez ahaztu. Esnatu zaitze.

## IZOTZAREN DISTIRA

Zisneak lorratz urdina uzten du bere atzean, hotzaren boterea baliatzen duenean. Urdina, marraztutako izotzaren distira bezalakoxea. Zodiakoko zaldunen arteko tristena ere bada, hildako amarekin oroitzen denean.

Batzuetan, bere burua harrapatzen du beste batzuen marrazkiak irakurtzen, eskuko marrak leititzen dituen igarlea balitz. Horrek ez du esan nahi asmatu egiten duenik. Ez du esan nahi egia aurkitzen duenik. Ez du esan nahi etorkizuna irakurtzen duenik.

Teknika edo mugimendu egokiarekin topo egiten duenean, magia iruditzen zaio. Edozelan ere, ez da egokia guztia zoriaren esku uztea. Egunero loterian jolastuko balitz, noizbait tokatu egingo litzaioke. Baina horrek ludopatian erortzeko arriskua dakar, hau da, zoriarekin harreman pertsonal estuegia izateko arriskua. Galtzea = irabaztea. Ez du uste, inondik inora ere, erlatibista denik. Goragoko adimen batek programatutako probabilitatea izan daiteke zoria; eta, hori horrela balitz ere, ez litzateke eskuragarri egongo. Ez da kontrolatzen; konposatze-ekintza guztiek ez daukate ondorio poetikorik, ezta horien agerraldira aurreratzeko teknika zehatzik ere.

Esan ohi da lan honetan ez-dakit-nolako zoria dagoela, eta onartu egiten da hala dela. Lanean esperantza jartzea —denbora eta energiarekin batera, bere dirua literalki gastatzen duen zorioneako egiten duen bezalaxe—, ekoiztearen bermea baino ez da, baina, aldi berean, epikoa ere bada. Zoriak, desirak bezalaxe, jarraitu egiten zaitu, eta jarraitua izaten da. Zianopatiaren teknika nahiko arbitrarioa da. / *Filpatzea*<sup>7</sup>, hitz okerra testu batean; horren ordez, *karikatuzizatzea*<sup>8</sup> / horren emaitzak ere arbitrarioak dira. Trazadura, aldiz, xedeari lotuta dago. Erabakiak

hartzea eskatzen du, azkar nahiz astiro, nork bere buruari inposatutako kontu baten barruan.

Urdinaren eta berdearen tartekoa da zian kolorea. John Bergerrek, Van Gogh-en tintazko paisaia batzuei buruz egindako iruzkinean, dio horiek ez direla ez koadro baterako zirriborroak ez bozetoak, «itxaropen grafikoak» baizik. Ezin hobeto adierazi: Itxaropen grafikoak. Lerroetako bakoitza asmoz, xedez beteta dago.

Patetikoak izateagatik baztertutako marrazkietatik zerbait espero du berak. Harreman sentimentala du lanarekin eta, beraz, pertsonalizatu egiten ditu, berreskuratu egiten ditu, berrito tratatzen ditu eta konturatzen da bazter uzten duenaren garrantziaz; izan ere, erreaktiboa da baztertutako hori. Horren ardura hartzen du, eta zati txarrak ere *birsanpleatzen*<sup>9</sup> ditu. Handienak, inozenteenak. Hori guztia, testuan, objektuak birziklatzeko zabortegia bezalakoxea da; edo, batzuetan, alferrik galdutako adimenaren parekoa.

Pentsatu nahi du beti egon dela zeru urdin bat, lan-hondakinak edertu egiten dituen; eta beti egongo dela lan-hondakin horiek ezkutatuko dituen gau urdin bat ere. Argiak erakutsi egiten du, eta itzalak, berriz, iradoki. Tārā (sanskritoz, izarra) jainkosa tantrikoaren magiak, aldi berean egiten du egia erakutsi (islatu) eta ezkutatu. Barrukoa, kanpokoa ulertzeko.

Zisnea irudi zatarra da. Bai, noski. Edertasunaren adierazpen bakunegia da. Zisnea ez dago argazkirako paratuta. Ez da ona, ez txarra, ez azkarra, ezta kontrakoa ere. Zisnea harrapakaria da, eta bere lurraldea zelatatzen du. Bere lur-eremua zaintzen du: lumak tente jarri eta, duda egun barik, etsaia ez den txakur edo gizakiarengana joango da, azkar eta zuzen. Ordea, animalia kanpotarra bainu bat hartzen besterik ez dago, ez du arriskua ezagutzen. Aipatu egiten du hemen, baina inoiz ere ezingo litzateke zisne batekin identifikatu. Ahatea izango litzateke gehiago, ahateak ere mokoa baitauka. Dokumentuaren amaierara iristen ari dela, hasieratik irakurri du, eta iruditutako neurri handi batean, defentsa-testua dela. Elezaharra da eskura duena, eta horixe baliatu du urmael batean kabitzen dena babesteko.

## ITZULTZAILEAREN OHARRAK

- 1 Testu hau itzulgi gabe utzi dugu, izaera eta zentzua erabat galduko lukeelako.
- 2 Jatorrizkoari eutsi diogu, testuan gerora ageri den hitz-jokoa errespetatze aldera.
- 3 Jatorrizkoari eutsi diogu, testuko hitz-jokoa errespetatzearen.
- 4 Jatorrizkoari eutsi diogu, testuko hitz-jokoa errespetatzearen.»
- 5 Gaztelaniazko haur-kanta baten zatia.
- 6 Ghost Rider jatorrizko ingelesezkoaren itzulpena.
- 7 Jatorrizko gaztelaniazkoan, «filparse».
- 8 Jatorrizko gaztelaniazkoan, «karikatuzirarse».
- 9 Jatorrizko gaztelaniazkoan, «resample».

Nadia Barkate, 2016

Diseinu graficoa | Diseño Gráfico:  
Gorka Eizagirre

Itzulpena | Traducción:  
Patricia Jorge Kuartango

Mila esker orrazketengatik | Muchas gracias por las revisiones:  
Elena Aitzkoa, Beatriz Herráez, Estítxu Cuesta, Lucía C. Pino, Ignacio García Sánchez,  
Elba Martínez, Héctor Rey e Iker Serrano.

Lege gordailua | Depósito Legal.: BI-307-2016

ARIZKO DORRETXEA | TORRE DE ARIZ

2016ko Maiatzaren 6tik ekainaren 5a arte  
Del 6 de Mayo al 5 de junio de 2016

JUAN ETA PABLO DE OTAOLA BEKA 2015 | BECA JUAN Y PABLO DE OTAOLA 2015



Frantzisko Kortabarria kalea, z.g  
Lehenengo solairua | Primera planta  
48970 BASAURI - BIZKAIA  
T. 944 666 426

Ordutegia | Horario:  
10:15h - 13:30h — 16:30h - 20:15h



Kultur  
BASAURI